

Bake konferentziak Moskun izango du jarraipena urtarrilaren 28an

Kooperazio ekonomikoa eta Ekialde Erdiko desarma e ztabaidatuko dira

Ekialde Erdiko Bake Konferentziak Moskun izango du jarraipena hil honen 28an, atzo iragarri zuten. Washingtoneko aldebiko elkarrizketak atzo amaitsu ziren, baina horien berri ez da eman, alde guztiek hala hitzartu bait zuten astelehenean, negoziaketan onerako dela deritzotelako. Moskun, Ekialde Erdiko estatu guztiek hartuko dute parte, eta ez bostek bakarrik orain arte bezala.

K. ALDABE / DONOSTIA

Washingtoneko elkarrizketak prozedurazkoak izan dira. Alde guztiek hurrengo elkarrizketetan zer negoziatuko den eztabaidatu eta erabaki dute. Lehen esan bezala negoziaketa horiek erabat isilpekoak izan dira, eta nola joan direnik ere ez da argitu. Israeldar eta arabiarren arteko elkarrizketetan ziurta daitekeen aurrerapausu bakarra israeldar eta jordaniar-palestinarrak azkenean mahai baten inguruan eseri direla da. Lurralde okupatueta autonomiaren negoziaketarik ez da egin.

Autonomiak Yitzhak Shamirren Gobernuaren beherakada ekar dezake. Dagoeneko hiru aldiz atzeratu du lehen ministro israeldarrek lurralde okupatueta autonomiaren eztabaida. Simon Peresen Alderdi La-



Talde palestinar batek zazpi lagun zauritu zituen herenegun egin atentatuan.

boristak (oposizioan) eskatu zuen eztabaida hori Legebiltzarrean, baina Shamirren gobernuak ultraeskuindarrek Gobernutik irtengo zirelako mehatxua egin zuten baldin eta hori eztabaidan jartzen bazen.

DAVID LEVY MOSKUN Bestalde, atzo eman zen ezagutzera Moskun izango dutela bake elkarrizketek jarraipena datorren urtarrilaren 28 eta 29an. Elkarrizketa horietan, gutxienez hogeitaz Atzerri

ministrok hartuko dute parte eta helburu modura kooperazio ekonomikorako plangintzak eta Ekialde Erdiko desarma e ztabaidatzea izango dute. Eztabaidatuko diren gaiak izan dira aste honetan David Levy Atzerri ministro israeldarrek Portugalera eginiko bisitaldiaren zereginak. Levy Portugalgo Gobernuarekin mintzatu da, Europako Komunitateko Lehendakaritza daukanarekin, hain zuzen. Portugalak EK ordezkatuko du Moskun, eta beste ordezka-

✓ Washingtoneko elkarrizketak atzo amaitsu ziren eta denak zain daude Moskukoak noiz hasiko.

bat ere izango du Europako Truke-Librearen Elkartea (EFTA).

Gogoratu behar da, Madrileko konferentzian, Hans Van den Broek-ek Atzerri ministro holandarrak eta EK-ko Lehendakaritza ordezka-riak orduan, kooperazio eta laguntza ekonomikoak agindu zituzkiola Ekialde Erdiari.

Levy Moskun izango da. Orain arte Bake Konferentzietatik at egon den Shamirren gizonak atzo jaso zuen Moskura joateko gonbitea. Aipatu behar da, Atzerri ministro israeldarra dela palestinarrekin negoziaketa bat eta autonomia emateko gertu dagoen Shamirren gobernuakide bakarra.

ASENTAMENDU GEHIAGOREN ERAIKUNTZA Gazzah eta Zis-jordanian lau asentamendu

gehiago egingo dituztela iragarri zuten atzo eskuin nazionalista israeldarreko militanteek. Israeldarren erabaki hau herenegun palestinar talde batek autobus baten aurka eginiko atentatuaren ondotik dator. Atentatu horretan zazpi lagun larri zauritu ziren, tartean zazpi urteko haur bat.

Bossano irabazteko moduan dago Gibraltarreko hauteskundeetan

GIBRALTAR

Joe Bossano Gibraltarreko ministro nagusia bertan gaur egiten ari diren hauteskundeetan irabazteko aukera handiena duen politikaria da. Bossanoren Alderdi Sozialista Laboristak Gibraltarreko azken hauteskundeetan botoen % 58 eskuratu zituen. Bossanoren ustez, bere alderdia botoen % 60 lortzeko moduan dago, nahiz eta «inkestetan konfidantza handirik» ez dela jarri behar adierazi.

Gibraltarren, urteak joan ahala, alderdibiko sistema ezarri da. Alderdi Laborista Sozialistak Legebiltzarreko eserlekuak Eskubide Zibilen Garapenerako Elkartearekin banatzen ditu. Azken alderdi honek ia berrogei urtez agindu zuen eskualde britainiar horretan, 1988. urtean Bossanoren alderdiak gehiengo absolutua lortu zuen arte.

Ministro nagusiak kanpainan zehar Gibraltar eta Espainiaren arteko gatazka behin eta berriro aipatu du. Bossanoren ustez, Espainia Europako Komunitatean sartzean Gibraltarren arazoak handitu baino ez dira egin. Bossanoren ustez, espainiarrek ez dute onartu nahi gibraltarrek EKren barnean ahotsa eduki dezaketarik. «Espainiarrek Gibraltar Caribeko irla bailitzan tratatu nahi gaituzte», zioen Bossanok.

Ministro nagusi gibraltarrak EK-k Erresuma Batuari baino ez ziola Brusselen hitzegiteko eskubidea onartu gogoratu zuen. Hau dela eta, Gibraltarrek beren jarrera mantendu eta bere statusa Madrilek onartu arte tinko eutsiko diotela adierazi zuen Bossanok.

ESPAINIARREKIN KONPONTZEKO ASMOA

Espainiarrekin gaur egungo gatazka konpontzeko asmoa duela adierazi zuen Bossanok. «Guk ezin diogu ziurtatu Gibraltarreko herriari aurrerantzean Espainiarekin harremanak izango ditugunik, hori Espainiaren esku dago. Dena den, guk gure aldetik gatazka konpontzeko asmoa dugula ziurta dezakegu».

Ministro nagusiak Gibraltar inguruko eskualde espainiarrekin elkarlanerako akordioak lortzearen alde azaldu zen. Bossanok ez zuen ahaztu Gibraltarreko nazioarteko aireportuaren inguruan sortutako gatazka. Erresuma Batua eta Espai-



Gibraltarren gaur egingo dira hauteskundeak.

niak Gibraltarreko aireportua batera erabiltzeko akordioa lortu bazuten ere, Bossanok espainiarrei aireportua erabiltzeko baimena ukatu zien. Espainiak Utrecheko Hitzarmenaren

bidez Gibraltar Erresuma Batua esku utzi zuen 1714. urtean. Harez gero, espainiarrek Gibraltar konkistatzeko ahaleginetan ihardun dute inolako arrakastarik lortu gabe.

LABURREAN

LEHEN ministro britainiarra arma nuklearren alde

John Major Erresuma Batuko lehen ministroa armamentu nuklear britainiarra mantentzearen alde azaldu zen Legebiltzarrean izandako debate batean. Lehen ministroaren ustez, Soviet Batasuna desagertu bada ere, garai bateko mehatxuek bertan dira. Tom King Defentsa ministroa ere Majorren iritziekin bat azaldu zen. Kingek azaldu zuenez, Gobernu britainiarrak oraindik ez daki nork kontrolatzen duen armamentu nuklear sovietarra ●

EGIPTOK Sudanekin duen mugan bigilantzia areagotuko du

Kairoko agintariek Egipto eta Sudan arteko mugan bigilantzia areagotu nahi dute. Bi estatuaren artean ezadostasun politiko handiak egoteaz gain, polizia egiptiarrak azken urtean Sudanetik legez kanpo sartutako arma ugari atzeman ditu. Egiptoko Gobernuak 1.200 kilometroko muga radar eta helikopteroz zaintzeko asmoa du. Era berean, mugazainek aurrerantzean entrenamendu bereziak egingo dituzte ●

EBBbetako Armada Golkoko Gerra argitu nahian dabil

Charles Horner Armada estatubatuarreko teniente jeneralak adierazi zuenez, Golkoko Gerran hogeitamar mila soldadu irakiar baino gehiago ez ziren hil. Hornerren ustez, seguraski militar irakiar gutxiago hil ziren eta ehun mila soldadu hil zirela esatea gehiegikeria dela azaldu zuen. «Hildako asko dira, baino norbaitek emandako datuetara ez dira hurbiltzen, ezta gutxiagorik ere», esan zuen militarrek CNN telebista kate estatubatuarrean ●

POLONIAKO kristau eta juduak 'Mein Kampf-en' kontra

'Mein Kampf' Adolf Hitler diktadore naziak idatzitako liburuaren argitalpenak eztabaida bizia sortu du Polonian. Orain arte Polonian nazismoaren irizpideak azaltzen dituen liburu argitaratzea gaitzetsita bazegoen ere, liburuak kalera ateratzean protesta ugari izan dira. Polonia Kristau eta Juduen Elkartea -bi erlijioen arteko elkartasuna lortu nahi duen erakunde- berehala eman du jakitera bere egonezina ●